BESTELAKO XEDAPENAK

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

1283

AGINDUA, 2016ko martxoaren 17koa, Ogasun eta Finantzetako Sailburuarena, zeinaren bidez Ogasun eta Finantza Sailaren Ordezkariak izendatzen diren Euskal Autonomia Erkidegoan Inbertsio Zientifiko-Teknologikoak egiteko Programako Ebaluazio-Batzorderako.

Euskal Autonomia Erkidegoan inbertsio zientifiko-teknikoak egiteko programaren oinarri arautzaileen 12. artikuluan xedatuta dago (Euskal Autonomia Erkidegoan inbertsio zientifiko-teknikoak egiteko programa garatzen duen 244/2015 Dekretuaren eranskinean daude oinarriok) ebaluazio-batzorde bat sortuko dela, programa horren babespeko finantzaketaren eskabideak ebaluatzeko, eta bertan izango diren sei kideetatik hiru Ogasun eta Finantza Sailekoak izango direla.

Halaber, xedatuta dago Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko eta Ogasun eta Finantzako sailburuak izendatuko dituztela kideok; horretarako, behar den agindua argitara eman beharko dutela EHAAn, eta batzorde horretako idazkari-lanak Ogasun eta Finantza Saileko kideetako batek egingo zituela.

Hori dela eta, aipatutako eginkizunak betetzeko xedez,

EBAZTEN DUT:

Euskal Autonomia Erkidegoan inbertsio zientifiko-teknikoak egiteko programaren ebaluazio-batzordeko kide izendatzea, Ogasun eta Finantza Sailaren ordezkari gisa, honako hauek: Juan Miguel Bilbao Garai (Ogasuneko eta Finantza Politikako sailburuordea), Zuriñe Embid Zubiria (Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako zuzendaria) –batzordearen idazkari-lanak egingo ditu–, eta Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde (Finantzen Euskal Institutuko zuzendari nagusia).

Vitoria-Gasteiz, 2016ko martxoaren 17a.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
RICARDO GATZAGAETXEBARRIA BASTIDA.